



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2025/10/03



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/10/07

2025EKO ABUZTUAREN 27AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2025eko abuztuaren 27an, arratsaldeko 18:30tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Micaela Elizalde, M^a Mar Ansorena, Javier Auza eta Alaia Etayo.

BERTARATU EZ DIRENAK: Julen Beunza eta Iker Isiegas.

Bertaratu da baita ere Isabel Ilarregui Itsasoko kontzejuko alkatea.

18:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du gai zerrendan dauden gaiak lantzearekin

GAIZERREDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Uztailaren 30eko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

2.- Alkate ebazpenak.

Ondoren zehazten diren alkate ebazpena onartu ditu alkateak azkeneko hilabete honetan:

-2025/83 alkate ebazpena onartuz Jose Joseba Barandiaran Arratibelek aurkeztutako aitorpen arduratsua eta 1795 euroko aurrekontua, Arraratsko 14. Poligonoko 27. Lursailan dagoen etxebizitzaren beheko solairuan, botatzeko obrak egiteko.

-2025/84 alkate ebazpena onartuz Francisco Legarra Iriartek aurkeztutako aitorpen arduratsua eta 6.263,18 euroko aurrekontua, Gartzarongo Asuncion 6 kaleko eraikinaren teilatu azpiko solairuan lurra eta elektrizitatea jartzeko.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/10/03



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/10/07

-2025/85 alkate ebazpena onartuz Agustin Beloqui Percazek aurkeztutako aitorpen arduratsua eta 9,886,52 euroko aurrekontua Itsasoko 4. Poligonoko 36. Lursailean dagoen etxebizitzan leihoak aldatzeko.

-2025/86 alkate ebazpena baimena emanaz Yolanda Arribas Gimeneri Apeztegi berriko bigarren pisuko gela 10etatik 12etara eta Jaunsaratsen dagoen polikiroldegia erabiltzea 12etatik 18tara, uztailaren 25ean, ongizate pertsonalarekin lotutako hainbat iharduera burutzeko.

-2025/87 alkate ebazpena Basaburuko eguneko egoitza martxan jartzeko proiektuaren ezaugarriak aztertuko dituen plan bat egin eta ezartzeko zerbitzu kontratua I3e S.L. enpresari esleitzea, 9.000 eurotan (BEZ kanpo) eta egiteko 9 hilabeteko epearekin.

- 2025/88 alkate ebazpena onartuz Valeriano Aldaz Tellecheak, Geserlocal entitatearen bidez aurkeztutako eskera eta hortaz onartu zorra epeka ordaintzea, 20 euro hilabeteko.

-2025/89 alkate ebazpena esleituz Aizarotzko parke seguro eta ingurugiroarekin errespetatzen duena egiteko eta instalatzeko kontratua, Astobizkar S.L enpresari, 17.700 euro BEZ kanpoko aurrekontuarekin, obra egiteko 3 hilabeteko epearekin eta kontratuaren berme epea osotara 9 urtekoa izanik.

- 2025/90 alkate ebazpena Transportes Iraola SLri (IFK: B31698541 eta: Ventas de Arraitz 8, Arraitz) helbidea duenari aurkeztutako eskaera onartzea, eta Itsasoko 4. poligonoko 496. lursailari lotutako jardueraren ekoizpen-orientazioa aldatzea, 72 UGM eta 180 txekor ustiatzeko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak.

3.- Itsasoko 4. Poligonoko 431. Lursailean fruitu lehorren biltegia egiteko iharduera baimena.

Alkateak azaltzen du Itsasoko 431. Lursailean fruitu lehorrak ekoizteko biltegi bat egin nahi dela. Horretarako 2020/17 Foru Legearen 38 artikulua jarraituz iharduera baimena behar du.

Bestetik ere lursaila lurzoru urbaniza gabeen egonik Nafar Gobernuak Paisai eta Lurralde Zerbitzu ataleko baimena behar du 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 110 eta 113. Artikuluan arabera, baimendutako jardura izanik. Baimen hau tramitean dago, ez da oraindik baimena jaso.

Jardura baimenaren tramitazioa aipatutako 2020/17 Foru Legearen arabera egin da eta hortaz, jardueraren jakinarazpena ondoko lursailen jabeei eta Itsasoko kontzejuari jakinarazi zitzaion, alegazioak jartzeko aukera irekiaz, jardura baimen eskaera Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen zenetik 20 eguneko epean.

Jardura eskaera, uztailaren 22ko 146. Aldizkariak argitaratu zen eta ez dira alegazioak aurkeztu jende aurreko epea horretan.





SINATZAILEA

Basaburuko alkathea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2025/10/03

SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/10/07

Gainera ere jarduerarekin lotutako baieztoko txostena egin du Orekan Gestion Ambiental de Navarra enpresak (2025/150. Txostena). Jarduera burutzerakoan hori bai bete beharko dira hurrengo zehaztapenak:

1.-Uretara egindako isurketak
- Hobit septikoa Ebroko Konfederazio Hidrografikoak baimenduko du. Azken ziurtagiriarekin batera, isurketa-baimenaren kopia aurkeztuko da, erakunde honek emandakoa.

2.-Suteen aurkako babesak (2267/2004 ED)
- Establezimenduaren barruan dagoen material erregaiaren kantitatea mugatuko da, su-karga, zuzendua eta haztatua, 200 Mcal/m² baino handiagoa izan ez dadin. Kalkuluetan, eraikuntza-material erregaiak ere hartuko dira kontuan (estalki-aulak).
- Estalduraren pisua (taula, isolatzailea eta teila, eta ezartzen diren gainerako materialak (rastreleak,...) ez da 100 kg/m²-tik gorakoa izango. Azken ziurtagirian erabilitako materialen zerrenda bat aurkeztuko da, imp bakoitzaren pisu unitarioa (kg/m²) eta guztizko pisua (kg/m²) barne hartuta.
- Ez da isolatzaile erregairik ezarriko estalkian (poliestirenoa...). Isolatzale erregaitza ezarri ahal izango da (artile minerala...).
- Sabaiko taulek C-s3 suarekiko erreakzioa izango dute, d0 edo hobea. Fabrika-tratatuak etorri eta suarekiko erreakzioa egiaztatu ezean:
• Suaren aurrean eskatutako erreakzioa emango dien suaren aurkako soluzio batekin tratatuko dira.
• Saiakuntzak substratu baliokide batean egingo dira (ignifugatu gabeko egurra...).
- Establezimenduak alarma-sakagailu batzuk izango ditu (gutxienez sakagailu bat irteera-atean, gehi dagozkion alarmak).
- Kanporako irteerako oinezkoen atea irekitzeko gailua eskuz erraz irekiko da heldulekuaren bidez, eta UNE-EN 179 arauaren arabera normalizatuta egongo da.
- Irteerak, ebakuazio-ibilbideak eta suteen aurka babesteko eskuz erabiltzen diren bitartekoak seinaleztatuko dira, UNE 23.033, 23.034 eta 23.035 arauen arabera.

3.-Suteen aurkako babesak
Establezimenduaren berezko arrisku-maila txikia izango da, eta, beraz, titularrak 2267/2004 Errege Dekretua aplikatzeko ahalmena duen kontrol-erakunde bati eskatu beharko dio instalazioak ikuskatzeko, industria-establezimenduaren berezko arrisku horren arabera ezarritako aldizkakotasunarekin (III, (6. eta 7. irudiak).

4.-Zaratak eta bibrazioak
- Uneoro bermatuko da ez direla gairidutako 1367/2007 Errege Dekretuaren III. eranskineko zarata-indizeak.

5.-Jarduera abian jarri aurretik, obren eta instalazioen zuzendaritza teknikoaren ziurtagiria eduki beharko da, teknikari eskudunak izenpetutako obren eta instalazioen behin betiko planoak jasoko dituen. Bertan, onartutako proiektuan zehaztutakoa bete dela jasoko da, eta, hala badagokio, Udalak ezarritako neurri zuzentzaileak eta baldintza gehigarriak, eta horiek berariaz adieraziko dira. Bertan berariaz adierazi beharko da suteen aurka babesteko instalazioak enpresa





SINATZAILEA

Basaburuko alkatzea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/10/03

SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/10/07

instalatzaile baimenduak egin dituela eta hala eskatzen duten aparatu, ekipo, sistema edo osagaiek arauen arabera marka dutela.

- 17/2020 Foru Legearen 44.1 artikulua arabera, jarduera sailkatuaren lizentzia eman ondoren, gehienez ere bi urteko epea dago jarduera hasteko.

44.2 artikulua arabera, sustatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ondoren jarri ahal izango da martxan jarduera. Adierazpen horretan, titularrak honako hau adieraziko du, bere erantzukizunpean:

- emandako lizentzian ezarritako baldintzak betetzen ditu;
- indarrean dagoen araudiaren arabera eska daitezkeen baldintzak betetzen ditu;
- hori egiaztatzen duen dokumentazioa du;
- eta lizentziaren xede den jardueraren funtzionamendu-aldian ezarritako baldintzak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

Bukatzeko aipatutako txostenak zehazten du 202/17 Foru lege horren 45.1 artikulua arabera, "epe hori igarota, instalazioa abian jartzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe, jarduera sailkatuaren lizentziak bere ondorioak agortuko ditu eta ez da eraginkorra izango".

Halaber, ez da eraginkortzat joko erantzukizunpeko adierazpena eta azken ziurtagiria, osotasunean eta bereizita, eskatutakoarekin bat ez badatoz edo errealitatearekin bat ez badatoz.

6.-Dokumentazio

osagarria

- Suteen aurka babesteko enpresa baimenduak emandako obra-amaierako ziurtagiria, teknikari tituludunak sinatua.

- Erabilitako eraikuntza-elementuen eta materialen sailkapena egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko da, suarekiko portaerari dagokionez (egonkortasuna, erresistentzia eta/edo erreakzioa), 842/2013 Errege Dekretuaren arabera dagozkion arauen arabera:

- Dokumentu grafikoa (argazkiak) erantsiko da, proiektuan aurreikusitako neurriak ezarri direla eta lizentzia-neurri gehigarriak ezarri direla justifikatzeko.

Hortaz hau guztia ikusita, eta 2020/17 Foru LEgearen 38. Eta ondorengo artikulua kontutan hartuz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Onartzea Garazi Mercero Martinenari jarduera baimena Itsasoko 4. Poligonoko 431. Lursailean fruitu lehorren txigortegirako.**
- **Erabaki hau sustatzaileari jakinarazi adieraziz jarduera baimena Oreka enpresak egindako 2025/150. baiezkotxostenera egokitu beharko dela eta ere oraindik jaso ez den Paisai eta Lurralde Zerbitzuko baimenari.**



BASABURUA

Egiaztapen-aseguru kodea: MDCA AATT CDDT RPR2 RMEC

2025-08-27ko akta - SEFYCU 225470

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://basaburua.sedipualba.es/>

6tik 4 orrialdea



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/10/03



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/10/07

Bildutakoek aho batez onartzen dute gai zerrendan sartzea, alkateak aipatzen duen azkeneko gaia.

Basaburuko eta Saldiasko ehiztari elkarteei ehizaren ustiapena egiteko esleipenak.

Alkateak azaltzen du ehiza barrutiaren baitan ehiza antolatzeko plana berritzen ari dela, bost urtero berritu behar baita. Hortaz plan honen indarra ehiza barrutia iraungitzen den artekoa izango da, hots 2029-2023 denboraldia.

Orduan ehiza barrutia beste 10 urtez berritu beharko da eta ere berean ehiza antolatzeko plana.

2021. urtean Saldias sartu zen Basaburuko NA 10230 ehiza barrutian, tramitazioa Nafar Gobernuak baimendu zuen, baina ez zen islatu ehiza planaren arabera Saldiasko eremuan ehizaketa Saldiasko ehiztari elkarteari zuenean emanen zitzaiola.

Orain ehiza antolatzeko plana berritzeko berretsi behar da aipatutakoa, hots Saldiasko ehiztari elkarteari esleitzea zuzenean 2005/17 Foru Legearen 26. artikuluan zehazten den moduan Saldiasko udalerriko eremuaren barruan ehizatzea, planean zehazten diren ehiza mota guztiak, ehiza nagusia, txikia, 22 usategietan ehizatzea eta 9 orkatzen ustiapena.

Aipatu den bezala ehiza antolatzeko plana berritzen ari denez, berritu behar da ere Basaburuko ehiztari elkarteari onartzen zaion esleipen zuzena plana indarrean dirauen eperako, 2029-2030 denboraldirako ere, hortaz bildutakoek bi elkarteei esleipenak onartzea erabaki dute. Hortaz alde batetik onartzen dute Saldiasko udalerriaren eremuan ehizatzeke ustiapena zuzenean 2005/17 Foru Legearen 26. Artikuluari jarraituz, Hego Xuri G71437123 IFZ zenbakia duen Saldiasko Ehiztari Elkarteari esleitzea, ehiza antolamendu planean zehazten diren ehiza modalitateak burutzeko aukerarekin, 2029-2030 denboraldi bukaera arte.

Era berean Basaburuko Basabila Tokiko Ehiztari Elkarteari G71043020 IFZ zenbakidunari esleitzea zuzenean 2005/17 Foru Legearen 26 artikuluaaren arabera, Basaburuko udalerrian ehizatzea, ehiza antolamendu planean zehazten diren ehiza modalitateak kontutan hartuz, 2029-2030 denboraldi bukaera arte.

Esleipen honetatik salbuesten dira, lhabengo usategien ustiapena lhabengo kontzejuak kudeatzen duelako eta 20 orkatzen ehiza, Basaburuko kontzejuen artean banatzen dena.

4.- Mozioak.

Bi mozio aurkeztu ditu Biel Kontsumitzaileen bizitza elkarteak, bat COVID txertoaren ingurukoa eta bestea gerrateen inguruan. Biak hala biak irakurri ondoren baztertuak izan dira, ez dira hortaz onartu.

5. - Batzordeen informazioa.

Kultura Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Pertseiden inguruko jarduera bertan behera gelditu zen eguraldiagatik eta hurrengo urtean egitea aurreikusiko da. Abuztuaren 19an Gari kantariaren kontzertua eskaini





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/10/03



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/10/07

zen Jaunsaratsko haritzetan. Euskara teknikariarekin bilera burutu du batzordeko lehendakariak.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

Irailaren 6 eta 7an Enduro proba burutuko da. Irailaren hasieran bidaliko dira adinduen yogan eta aktibatu programan izena emateko gutunak.

Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Irailaren hasieran ere bidaliko dira Sasturain etxean burutuko diren memoria eta gimnasia tailerren gutunak eta teknologia berrien inguruko tailerrarena, adinduei zuzenduak biak hala biak.

I3E enpresarekin sinatu da kontratua, Sasturain etxean eguneko egoitza irekitzeko beharrezkoak diren izapideak egiteko. Irekiera martxoan egitea aurreikusten da, hau guztia bukatu ondoren.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Ttikienako zuzendariarekin bilera egin du, bertan ikasturte berriaren inguruan hitz egin dute eta adierazi dio 13 haur hasiko direla baina urtarrian beste bat etortzea aurreikusten dutela. Argazkiak egiteko makina berria erosteko eskaera luzatu dio eta ontzat eman zaio. Ikasturtean behar duten materiala aukeran Amazonen ez erostea eskatuko zaiela adosten dute bildutakoak, tokiko merkataritza bultzatzeko.

Oihanzabal eskolako guraso elkarte eta Euskara teknikariarekin bilera burutu da.

25-26 ikasturterako Oihanzabal eskolako garraioa bi taxiekin burutuko da, lerro bat Martin Perurenak egingo du eta bestea Zigako taxi gidari batek.

6.- Informazio orokorra. Alkateak ematen du:

- Udaleko ordenagailuak aldatu dira, XP sistemaren mantenimendua urrian iraungitzen delako.
- Urriaren 14an bilera buruko da Nafar Gobernu Garraio Zerbitzuko zuzendaria den Berta Mirandarekin, Basaburuko garraio zerbitzu ezari buruz hitz egiteko. Bertan aipatuko zaizkio Basaburuko Garraio Batzordeko bileran hitz egindakoak.

7. Erreku-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 19:40 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.e

